

1.GAIA: ORDENAMENDU JURIDIKOA ESTATU SOZIAL ETA DEMOKRATIKOAN

1.1 ZUZENBIDEAREN KONTZEPTUA

Zuzenbidea gure egunerokotasunean erraz edo azkar asko ikusi dezakegu, toki guztietan dago eta askotan ez gara ezta konturatzen. **Gure portaerak, zuzenbideak bideratzen eta arautzen ditu.** Adibidez, autobus batera igo eta tiketa erostean, zuzenbidea aplikatzen ari gara, horren atzean arau bat dagoelako, kontratu bezalako bat sinatzen ari zara.

Gure bizitza osoan dago zuzenbidea, ohartu gabe araez inguratuta bizi gara eta gizarteak arau horien menpe funtzionatzen du.

Zer egiten dute araeak?

Arauek gizakien portaerak arautzen dituzte eta arau mota ezberdinak daude. Zenbait araeak eskubideak aldarrikatzen dituzte (positiboak), beste batzuek aldiz, debekuak ezartzen dituzte (negatiboak), azkenean gure portaera gidatzen dute.

Zergatik dira beharrezkoak arauak?

Gizarte baten portaera antolatu eta bideratzeko, **gizarte batek ordena izan behar duelako**, imajinatu errepideak seinale gabe. Baina, arau asko ezarri ezkerro, beharbada gizakiaren askatasuna asko murriztuko dugu. Horregatik, **estatu batek oreka lortu behar du arau juridiko eta pertsonen askatasunaren artean.** Gaur egun, gizarte gehienetan arau gehiegi daudela esan dezakegu, pertsonaren independentzia kaltetuz. (Antzinako gizarteetako diktadore autoritarioen aldean gaur egun askeagoak gara, baina kontuz ibili behar da askatasun terminoarekin.)

Idea ez da gizakien portaera denak arautzea, baizik eta ordena bat lortzea. Gobernuaren politikaren arabera, askatasuna gehiago edo gutxiago murriztuko da. Beraz, zuzenbidearen helburua gizarte batek ordena mantentzea da.

Gizarte batean, arau mota ezberdinak daude eta **gehienak arau juridikoak dira, baina badaude beste arau mota batzuk: arau moralak, erlijiosoak, ohiturak...**

Arau juridikoen ezaugarri nagusia da estatuaren boterea dagoela atzetik, eta honek esan nahi du arau hauek betetzea derrigorrezkoa dela eta borondatez betetzen ez baditugu, estatuak betearaziko dizkigu. Atzetik estatuaren erakunde bat egongo da betetzera behartuko gaituena.

Hau da, sententzia borondatez betetzen ez badu, epaileak beste modu batean betetzera behartuko du. Adibidez, produktu bat aldatu nahi badut garantiaren barruan eta dendariak ez dit ematen, epaileak agindu arren, epaileak horretara behartu beharko du edota beste adibide bat izan daitezke zergak ere.

Aldiz, arau erlijiosoen aurrean estatuak ez du bultzatuko arau hori betetzea.

Zuzenbidearentzat arau juridikoak dira garrantzitsuenak, ondorioz zuzenbidea definitu nahi badugu, esango dugu, **zuzenbidea dela gizarte baten jarduera gidatzen duen arau multzoa.**

1.2 ARAU JURIDIKOAK

Arau juridikoak gizarte batean dauden arau garrantzitsu eta ugariak dira, baina hauen artean mota ezberdinak desberdinu daitezke.

A taldea (Zer egin edo ez esan eta ez egitean santzioa ezarri, negatiboan arautu.) **Jarrera bat agintzen zein debekatzen diguten arau juridikoak.** Hauek ohikoenak dira, normalean arau juridikoen artean aurkituko ditugunak. Arau hauek pertsonen artean eman beharreko portaera gidatzen dute. Estructura edo egitura sinplea daukate, agindu edo debeku bat ezartzen dute eta jarraian, portaera hori izan ez badugu ozango dugun zigorra ezartzen dute. Hau da, **beti dituzte bi atal: Lehenengo, zer egin edo zer ez egin, eta bigarrenik, zer gertatu egin ezean.**

Adb: Kode penalak dio lehenik, inor ezin dela hil, eta ondoren, norbait hil ezker, zigorra zein den. Hau da, eguneroko portaera zehaztu eta bideratzen dute.

Arau juridikoen kasuan, beharrezkoa da gizarteak hauek alde aurretik ezagutzea, estatuak hauek betearazteko indarra izateko. Horretarako, **beharrezkoa da arau juridikoak publikatuak egotea,** gizartearen berme bat izan behar du. Arau juridikoak publikatzeko, aldizkari ezberdinak daude, eta segun eta non aplikatuko den legea, aldizkari bat edo bestea erabiliko da. **Argitalpenak berak adieraziko digu araua noiz sartzen den indarrean, hau da, noiz den bete beharrezkoa.** Publikazioaren helburua, segurtasun juridikoa, mantentzea da, hau da, gizarteak uneoro jakitea zeintzuk diren bete beharreko arauak. **Beraz, arau bat ez badago publikatua, ez da beharrezkoa betetzea.**

Hala ere, honek ez du esan nahi pertsona batek arau bat ezagutzen ez badu ez duela bete behar, arau bat ez ezagutzeak edo oker ulertzeak, ez digulako arau hori ez betetzeko eskubidea ematen.

Beraz, talde honetakoa arauak gure askatasuna mugatzen dute, estatuaren betebeharra delarik arauak publikatzea eta gizakiarena arau horiek betetzea.

B taldea : Portaera , zerbait egitea baimentzen diguten edo eskubide bat aldarrikatzen duten arau juridikoak. Hau da, arau juridiko hauek ezartzen dituzten baldintzak betetzen baditugu, portaera bat izatea baimenduko digute edo eskubide bat onartuko digute. **Beraz, bigarren talde honetako arauak gure askatasuna zabaltzen dute.**

1.3 ESTATU GARAIKIDEA

“Estatu bat lurralde baten gainean ezarritako gizartea da, antolakuntza politiko independente bat duena eta estatu horren baretik sortzen den botera duena.”

Definizio honetatik, estatua osatzeko behar diren elementuak aterako ditugu:

1.Boterea edo agintea: Estatu batean pertsona batek edo batzuek **gizarte hori gidatzeko boterea** izango dute. Estatuak jarraitzen duen sistemaren arabera, daukan antolakuntzaren arabera da botere banaketa.

Aspaldi estatu autoritarioak, diktadurak zeuden, orain demokratikoak nagusitzen dira, botere banaketa bat dutenak.

2.Estatu bat izateko edo osatzeko **lurralde bat** behar dugu, **non estatuko gizartea biziko den.**

3.**Subiranotasuna:** Subiranotasunak esan nahi du, **estatu horrek gizartean agintzeko boterea berezko izango duela**, estatu independentea, antolatze gaitasun propioa.

1.4 ARAU JURIDIKO ETA BESTE ARAUEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK

Esan dugu, **arau juridikoak agintariak ematen dizkiguten arauak** direla, hau da agintarien babesa dago arau hauen atzean.

Baina arau juridikoen gain, gizartean beste arau mota batzuk daude, nagusienak honakoak izanik:

1.OHITURAK: Ohitura bat sortzeko, portaera bat behin eta berriro errepikatu behar da. **Momentu batean, gizarteak ulertuko du portaera hori arau bihurtu dela eta denek jarraituko dute.** Garai batean, gizarteetan, ohiturek izugarriko pisua zuten, arau gehienak ohiturak zirelarik.

Ordea, arau juridikoen atzetik, estatua dago, hau da, bete beharrezkoak dira, eta betetzen ez badituzu, estatuak hauek betearazteko sistemak ditu.

Ohituren kasuan, ohitura bat betetzen ez badugu, estatuak ez digu inolako zigorririk jarriko, ohiturek ez dutelako estatuaren babesa. Hala ere, batzuetan ohitura bat ez betetzeak, gizartearen aldetik izango du bere "zigorra". Adb: Toki batean sartzean ez badugu agurtzen, gizarteak moduren batean gure jarrera txartzat hartuko du, "zigorren" bat jarri, (kritikatu, gaizki ikusi...)

2.ARAU MORALAK: Norberari bere buruak ezartzen dizkion arauak dira, erabat pertsonalak eta erlatiboak.

Arau moralak norberak bere buruari ezartzen dizkion arauak dira, bakoitzak bereak dauka eta beharbada denborarekin aldatuz doaz. Arau moralek gure etika edo printzipioak islatzen dituzte. **Arau juridikoekin konparatu ezker, desberdintasun nagusia jatorria izango da.** Arau juridikoen kasuan, hauek estatuak jartzen dizkigu eta derrigorrezkoak dira. Aldiz, arau moralak guk gure buruari ezartzen dizkiogu eta betetzen ez baditugu estatuak ez du parte hartzerik izango.

Askotan, arau moralak zenbait arau juridikorekin kontzinditu dezakete, adibidez, gure etikak inor ez kaltetzea ezarru dezake eta batera zenbait arau juridikok berdina esaten dute.

3.ARAU ERLIJIOSOAK: Arau erlijiosoak, erlijio desberdinek euren partaideei jartzen dizkieten arauak dira. Beste arauekin alderatuz, arau erlijiosoen jatorria ez da estatua ezta norberaren morala, baizik eta erlijio honen sortzaileak jarritako arauak **Arau erlijiosoen kasuan estatuak ez dauka inolako parte hartzerik, hau da, arau erlijioso bat betetzen ez bada, estatuak ez gaitu behartuko eta ezta ere zigortuko**, baina bai gerta daiteke, erlijio horren sortzaile edo babesleak zigor bat jartzea arau horiek bete ez dituen jarraitzaileari.

1.5 ZUZENBIDEAREN HELBURUAK

Zertarako dago estatu batean zuzenbidea?

Zuzenbideak **helburu desberdinak dauzka; baina nagusienak bi** direla esan dezakegu: batetik, bakea eta segurtasuna mantentzea, eta bestetik, justizia lortzea.

1.Bakea eta segurtasuna mantentzea: Zuzenbidearen helburu nagusia gizartean bakea mantentzea da, hau da, gizarte hortako kideek zer egin dezaketzen eta zer ezin dezaketzen egin esango digu.

Gainera, zuzenbideak, gatazkak sortzean, hauek nola konpondu ezarriko digu, horrela ere, bakea mantenduz. Bakea mantentzeaz gain, zuzenbideak gizarteari segurtasuna eman behar dio, hau da, gizarte horretako kideek uneoro arauak ezagutu behar dituzte. Segurtasun hori bermatzeko, ezinbestekoa da arau juridikoen argitaratzea, eta argitaratzen diren arau horiek zehatzak eta argiak izatea.

Segurtasun juridikoarekin jarraituz, arau juridikoak ezingo dira atzerakotasunarekin aplikatu, hau erregela orokorra delarik. Hau da, legeak indarrean jartzen direnetik, hortik aurreragoko egoeretara aplikatzen dira. Erregela honen salbuespena, arau juridiko berria interesatuarentzat onuragarria den kasua da. Kasu horretan, arau juridiko berria hau baino lehenago eman zen egoera bati aplikatuko zaio, hau bereziki, arlo penalean gertatzen da.

2.Justizia: Zuzenbideak justizia lortu nahi du gizartean, kontzeptu hau oso zehaztugabea delarik. Justiziak suposatuko du , batetik, **berdintasun printzipioa** eta bestetik, **proportzionaltasun printzipioa** errespetatu beharko dituela zuzenbideak. **Berdintasuna, egoera berdin bati, erantzun berdina ematea da**, eta berdintasuna bermatzen dugu, egoera ezberdinei erantzun ezberdina emanez.

Proportzionaltasun printzipioak suposatzen du , **egoereri beti erantzun proportzional bat eman behar zaiela justizia lortzeko.** (Zigor proportzionalak)